



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko martxoaren 27a

25. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, sozietate publikoaren definizioari eta kontzeptuari buruzkoa. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legea aldatzekoa. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Foru Lege proposamena, gizarte ereduari buruzko gutun baterako. Tramitera ez onartua (6. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azken uholdeek eragindako kalteak konpontzeko hartu beharreko neurriak berehala har ditzan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sustapen Ministerioarekin negoziata dezan salgaiak eta bidaiariak garraiatzeko ereduaren araberakoa izan dadila eraiki beharreko trenbidea. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun zentro eta kontsultategietako gabetasunei presako erantzuna eman diezaien. Osasun Batzordeak bazter utzia (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 351/1992 Foru Dekretua alda dezan, osasun eskualde oinarritzekoak etengabeko laguntzaz hornitzeko. Osasun Batzordeak bazter utzia (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, fisioterapiako eskolak eta kirurgia-operazio baten ondoko etxeko laguntza direla-eta Tuterako Reina Sofia Ospitalerako Osasun kontseilariak egiten dituen proposamenei buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (10. or.).
- Galdera, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen kontseilariak 33/2006 Foru Agindua emateko izan dituen arrazoiei buruzkoa, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (11. or.).

- Galdera, Nafarroako Gobernuak Baluarte-Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditorioko errotulazioari buruz Nafarroako Parlamentuak onetsi zuen erabakia betetzeko asmorik ote duen jakitekoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egin (11. or.).
- Galdera, “Nafarroako Erresuma, lur anitza” esloganari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egin (12. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuak plangintza eta aurreikuspena direla-eta zentro psikogeriatrikoari egindako proposamenari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egin (13. or.).
- Galdera, kontratazio mahaiari buruzkoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1140/2005 epaiaren betetzearen harira, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1140/2005 epaiaren betetzearen harira aldeek errekurtsioak aurkezteko ezarritako epeari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (14. or.).
- Galdera, administrazioari aholku emateari buruzkoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1140/2005 epaiaren betetzearen harira buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak iragarritako zenbat plan taxutu eta onetsi diren jakitekoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egin (15. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, sozietate publikoaren definizioari eta kontzeptuari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Aralar parlamentu-taldeak sozietate publikoaren definizioari eta kontzeptuari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Sozietate publikoaren definizioari eta kontzeptuari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2006ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Sozietate publikoaren definizioari eta kontzeptuari buruzko Foru Lege proposamena

1. artikulua. Urtarrilaren 3ko 15/2004 Foru Legeko 121. artikuluari hurrengo testua ematen zaio:

121. artikulua. Kontzeptua eta orotariko araubidea.

1. Sozietate publikoak dira sozietatearen borondatea administrazioaren erabakimenean duten merkataritza-entitate nahiz entitate zibilak, administrazioak kapital sozialaren gehiengo osoa duelako nahiz sozietate horiek osatzeko edo eratzeko garaian erabaki hori bermatuko duten tresna juri-

dikoei eutsi dielako. Enpresa publikoak administrazio publikoaren zati bat direla jotzen da.

2. Sozietate publikoak aplikatzekoa zaien antolamendu juridiko pribatuaz arautuko dira; hau da, Foru Berria eta Kode Zibila sozietate zibilen kasuan eta merkataritzaren arloko araudia merkataritza-sozietateen kasuan.

3. Aplikatzekoak diren arau juridiko pribatuak betetzeaz gainera, sozietate publikoak, aurrekontuei, kontabilitateari, ondareari eta finantzen kontrolari dagokienez, Comptos Ganberaren ikuskaritza-pean daude, administrazio osoa bezala. Lan kontratazioaren arloan, Langileen Estatutuaren eta hura garatzen eta osatzen duten arauen menpe daude sozietate publikoak, hain zuzen ere zehaztasun batekin: langileak kontratazio finkoetarako hautatzerakoan, publizitate, askatasun, eta lehiarako berdintasunaren printzipioak errespetatu beharko dira. Kontratazio ekonomikoaren eta merkataritza-kontratazioaren arloetan, dagokion antolamendu juridiko orokorrak eta bereziaz gainera, Nafarroako administrazio publikoaren kontratuei buruzko Foru Legea aplikatu beharko zaie.

4. Enpresa publikoetako arduradunek eta langileek ondasun publikoak kudeatzerakoan eta beren harreman sozial eta ekonomikoetan leialtasunez, diskrezioz eta zuzentasunez jokatu beharko dute.

5. Enpresa publikoak ezin izanen dira zuzenean baliatu agente publikoak, baina esleituta daukaten eginkizun edo funtzio publikorako behar dituzten baliabideak eta ahalmenak edukiko dituzte.

2. artikulua. Testu berria ematen zaie abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko 125. artikuluko 1., 3. eta 4. idatz-zatiei.

125.1. artikulua. Fundazio publikoak Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak eta haren erakunde autonomoak beren esku dituzten helburuak egiteko sortzen dituztenak dira, Foru Zuzenbide Zibilar buruzko Konpilazioarekin bat. Entitate sortzailearen eskumen esparruari loturiko jarduerak

egin ahalko dituzte bakarrik. Fundazio publikoak administrazio publikoaren zati bat direla jotzen da.

125.3. artikulua. Aplikatzekoak diren arau juridiko pribatuak betetzeaz gainera, fundazio publikoak, aurrekontuei, kontabilitateari, ondareari eta finantzen kontrolari dagokienez, Comptos Ganberaren ikuskaritzapean daude, administrazio osoa bezala. Lan kontratazioaren arloan, Langileen Estatutuaren eta hura garatzen eta osatzen duten arauen menpe daude sozietate publikoak, hain zuzen ere zehaztasun batekin: langileak kontratazio finkoetarako hautatzerakoan, publizitate, askatasun, eta lehiarako berdintasunaren printzipioak errespetatu beharko dira. Kontratazio ekonomikoaren eta merkataritza-kontratazioaren arloetan, dagokien antolamendu juridiko orokorraz eta bereziaz gainera, Nafarroako administrazio publikoaren kontratuei buruzko Foru Legea aplikatu beharko zaie.

125.4. artikulua. Fundazio publikoetako ardura-dunek eta langileek ondasun publikoak kudeatzerakoan eta beren harreman sozial eta ekonomikoetan leialtasunez, diskrezioz eta zuzentasunez jokatu beharko dute.

5. Fundazio publikoak ezin izanen dira zuzenean baliatu aginte publikoaz, baina esleituta daukaten eginkizun edo funtzio publikorako behar dituzten baliabideak eta ahalmenak edukiko dituzte.

3. artikulua. Abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 5. artikulua aldaketa.

5. artikulua. Foru lege honen ondorioetarako, sozietate publikoak dira Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko 121. artikuluan halakotzat definiturik daudenak.

Lehen xedapen indargabetzailea.

Indarrrik gabe geratzen da abenduaren 3ko 15/2004 Legeko laugarren xedapen iragankorra.

Bigarren xedapen indargabetzailea.

Indarrrik gabe geratzen da abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 5. artikulua.

Azken xedapena.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Foru Lege proposamena, Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legea aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2006ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Foru Lege proposamena, Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legeko 54. artikuluko k) letrak –foru legearen testu bategina urriaren 14ko 213/2002 Legegintzazko Foru Dekretuaz onetsi zen–, kidego horietako funtzionarioei aplikatzekoa den diziplina araubidearen barruan, honakoak hartzen ditu hutsegite larritzat: “Kidegotik kanpoko pertsoneri edo hedabideei eginiko adierazpenak, nagusien erabakien kritika bat edo haiekiko desadostasun argia badira”.

Auzitegi Gorenako Administrazioarekiko Auzien Salako 7. Sekzioak, 1996ko irailaren 26ko epaian, baliogabe deklaratu zuen Polizia Nazionalaren diziplina araubideari buruzko Erregelamenduko 7.2 artikulua zekarren antzeko xedapen bat. Erregelamendu hori uztailaren 14ko 884/1989 Errege Dekretuaz onetsi zen eta bertan hutsegite larritzat jotzen ziren “nagusien erabakien kritika edo haiekiko desadostasuna azaltzeko adierazpen publikoak”. Goi auzitegiak orduko hartan zioen “aurkaturiko tipoa erabat debekatzen dituela 'nagusien erabakien kritika edo haiekiko desadostasuna azaltzeko adierazpen publikoak' debekatzera, halako moduan non haren ondorioz ezinezkoa baita desberdintzea kritikako adierazpen publiko onargarriak eta arau-haustea izan daitezkeenak. Eta debeku horren erabatekotasuna da arazoa Espainiako Konstituzioaren 20.1 a) artikulua ikuspegitik, nagusien erabakiak direla-eta ez baitu batere tarterik uzten artikulua horretan aldarrikatzen den oinarritzko eskubide horretaz baliatu ahal izateko”. Auzitegi Gorenaren arabera, poliziako funtzionarioen adierazpen askatasunerako oinarritzko eskubidea mugatzen duen tiporen bat Konstituzioaren ikuspegitik onargarria izan liteke, baina kritika publiko guztiak goitik behera debekatzeko ez dator bat oinarritzko eskubide horrekin. Auzitegi Gorenak Konstituzio Auzitegiaren epai batzuetako doktrina aipatzen du (81/1983, 69/1989 eta 270/1994 epaiak); izan ere, haien arabera, eskubide horri jar dakizkiokeen mugak kasuan kasuan neurtu behar dira, eta modu murrizgarrian interpretatu behar

dira, eta, betiere, ez dute baztertzen segurtasun kidego edo indarrak osatzen dituztenek beren nagusiak kritikatzeko duten askatasuna, beren eskubide edo interes profesionalak aldezteko. Izan ere, bestela, Konstituzioan aitorturiko eskubide horren funtsezko edukia. Auzitegi Gorenak ondorioztatu zuen “hemen aztertutako tipoa zabala eta lehenago nabarmendu diren xehetasunik gabea denez, zalantzarik gabekoa da hartan sarturik daudela adierazpen askatasunerako eskubideaz legez baliatzeko jokabideak, betiere bateragarriak badira hierarkia eta obedientzia betekizunak bereziki zorrotz betetzearen ondoriozko mugekin; zentzu horretan, tipoa, formulatuta dagoen bezala, Espainiako Konstituzioko 20.1.a) artikulua erekin egiten du topo”.

Auzitegi Gorenak aplikaturiko doktrina bera Polizia kidegoei buruzko Foru Legeko 54.k) artikuluari aplika daki. Funtzionarioek nagusien erabakiei buruzko edozein motatako adierazpen kiritiko egiteko erabateko debekua, xehetasunik gabekoa, nekez uztartu daiteke adierazpen askatasunerako oinarritzko eskubidearekin. Hori dela eta, bidezkoa da hura aldatu eta Konstituzioaren beharrezko egokitzea, eta zehapen tipoa mugatzea polizia kidegoei esleitutako zerbitzuan benetako kaltea sortzen den kasuetarako.

Artikulu bakarra.

Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legearen testu bategina onetsi zuen urriaren 14ko 213/2002 Legegintzazko Foru Dekretuko 54. artikuluko k) letra aldatzen da. Hona testu berria:

“k) Kidegotik kanpoko pertsoneri edo komunikabideei eginiko adierazpen publikoak, zerbitzu-emaitea modu larri eta nabarmenean kaltetzen dutenak”.

Xedapen indargabetzailea. Arauak indargabetzea.

Indarrak gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena. Indar hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Foru Lege proposamena, gizarte ereduari buruzko gutun baterako.

TRAMITERA EZ ONARTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.2 artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz eta herriaren legegintza-ekimena arautzen duen martxoaren 25eko 4/1985 Foru Legearen babesean, Gizarte ereduari buruzko gutun baterako Foru Lege proposamena aurkeztu zen Nafarroako Parlamentuan; hain zuzen ere, Mitxel Lacunza Vicario jauna buru duen batzorde sustatzaile batek aurkeztu zuen.

Legebiltzarreko Zerbitzu Juridikoek txosten bat egin dute, zeinean adierazten baita foru lege proposamen hori onartezina dela, 4/1985 Foru Legearen 5.2.a) artikulua hala ezartzen duelako. Izan ere, proposameneko 3.9 artikulua euskararen erabilera ofizialean eragina dauka, eta gai hori aipatu foru legearen 2.b) artikulua herriaren lege-

gintza-ekimenetik kanpo uzten duen gaietariko bat da, zeren eta, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 19.3 artikulua xedatzen duenez, gai horri buruzko legegintza-ekimena Foru Diputazioari eta Parlamentariei baizik ez dagokie.

Hori ikusirik, 4/1985 Foru Legearen 5 eta 7. artikuluekin bat eta Erregelamenduaren 146.1 artikulua xedatutakoari jarraituz, Eledunen Batzarri entzun ondoren, ERABAKI DA:

1. Gizarte ereduari buruzko gutun baterako Foru Lege proposamena tramitera ez onartzea. Foru lege proposamen hori Mitxel Lacunza Vicario jauna buru duen batzorde sustatzaile batek aurkeztu zuen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara adin agintzea.

Iruñean, 2006ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azken uholdeek eragindako kalteak konpontzeko hartu beharreko neurriak berehala har ditzan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Nafarroako Gobernua premiatzen da azken uholdeek eragindako kalteak konpontzeko hartu beharreko neurriak berehala har ditzan.”

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Batzordean presaz eztabaidatu eta onesteko.

Zioen azalpena:

Azken aste hauetan egin duen elurrak eta azken egunetako euriek Nafarroako ibai batzuek gainezka egitea ekarri dute; uholde horiek, munta handikoak izan baitira, galera material handiak

eragin dituzte etxebizitzetan, etxeetako ondasuetan, ibilgailuetan, industrietan, azpiegituretan eta komunikazioetan.

Kalteen zenbatze ekonomikoa oraindik ere egin gabe dago, baina segurantziaz esan daiteke handia izanen dela galera materialei dagokienez.

Sozialisten parlamentu-taldeak, Nafarroako Parlamentuan antzeko egoeretan aurkezturiko ekimenekin zer gertatu den badakienez, ondoko mozioa aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

a. Presaz har ditzan behar diren neurriak berriki Nafarroako zenbait herritan gertatu diren uholdeek eragindako kalteak konpontzeko.

b. Aurten kreditu berezi bat jartzea, gertaturiko kalteak eta galerak konpontzeko finantzaketa-neurri nahikoa izanen dena.

c. Azpiegiturek eta komunikazioak berehala berrezartzea bideratuko duten neurriak –laguntza ekonomikoak– ezartzea.

d. Behar diren plangintza neurri eta inbertsioak egitea ibai-ibilgu eta ibaiertzetan, uholdeei aurrea hartzeko.

e. Alerta goiztiarreko sistemak eta behar diren prebentzio tresna guztiak hobetzea, babes zibileko sistema egokia bermatzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sustapen Ministerioarekin negoziata dezan salgaiak eta bidaiariak garraiatzeko ereduaren araberakoa izan dadila eraiki beharreko trenbidea.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Sustapen Ministerioarekin negoziata dezan salgaiak eta bidaiariak garraiatzeko ereduaren araberakoa izan dadila eraiki beharreko trenbidea."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, Nafarroako trenbide ereduari buruzko ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioak:

Parlamentuan ordezkariak daukagun talde guztiok berriaz babestu dugu Nafarroan trenbidearen sare berria finantzatzeko eta eraikitzeko dirua foru erkidegoak Estatuari ordaindu beharreko kupotik edo ekarpenetik aurreratzeko aukera.

Hala eta guztiz ere, eraikitze lan hori ezin da mugatu Sustapen Ministerioaren proiektu eta xedeak betetzera; aitzitik, Nafarroako herriaren ordezkari politikoek, hau da, Foru Parlamentuak, Nafarroarentzat egokiena den konponbidean eragin eta hura sustatu behar du, betiere nafarrok erabaki politikoak hartzeko daukagun ahalmenean oinarriturik. Beste jarrera bat izatea, hau da, Madrilen proiektuen egile eta finantzatzaile hutsak izatea mirabekeria laidogarria izanen litzateke.

Gainera, UPN-CDN gobernuak proiekturik ez du eta proposamenak agortu zaizkio. Horrenbestez, arlo honetarako ez du benetako proposame-

nik. Palacios jauna Herrilan kontseilaria zen garaietan, defenditu izan zuen Iruñetik iparralderantz joan zen trazadura berri bat. Horren ondorioz, egungo errealitatea joan-etorriko tren soil bat da, jendeak "el ramalazo" deitu izan duena, baina larriena da Nafarroako Gobernuak ez duela ez programatu, ez planteatu trenbide-konponbide bat Nafarroako enpresek beren produktuak Kantauri itsasoko portuetara, edo ibilbide luzeko Europako trenbide sareetara eraman ahal izateko, ipar eta hegoko polo ekonomikoak lotzen baitituzte.

Gainera, beharrezkoa da defendatu beharreko proposamenek ingurumena errespetatzea eta konponbide errealista, funtzional eta bideragarriak proposatzea Euskal Autonomia Erkidegoan egiten den trenbidearekin lotzeko.

Horri dagokionez, gogoratu beharra dago Eusko Legebiltzarrak onetsi berri duela Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako trenbide trazadurak Altsasun elkartuko direla.

Nafarroako Parlamentuak ere eragile sozial, sindikal eta politikoek azpiegitura honi buruz daukaten erreklamazioak eta ikuspuntuak entzun behar dituzte, eta Nafarroak, lan horietan, helburu izan behar du ingurumena babestea eta, gainera, Europako trenbideetarako bidea eta orubea izatea, geografiak eta historiak hala eskatzen baitute.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak erabaki du Nafarroako Gobernua premiatzea Madrilgo Gobernuak Sustapen Ministerioarekin negoziata dezan salgaiak eta bidaiariak garraiatzeko ereduaren araberakoa izan dadila eraiki beharreko trenbidea.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, eragile politiko, sozial eta sindikalekin batera, azter dezan zein den gure hiriburuak eta eskualdeak lotzeko trenbide-trazadura egokiena.

3. Gure erkidegoaren premiei eta lurraldea egituratzeko beharri erantzuna emateko, azpiegitura edo zerbitzu horrek gutxienez ere lau geltoki izan ditzala, hau da, Tuteran, Tafallan, Iruñean eta Altsasun, eta, ahal dela, egun dagoen trazadura erabil dadila.

4. Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide sarearekiko lotura Altsasun egin dadila.

5. Horrenbestez, behar bezala modernizaturik mantendu dadila egungo Arakilen barnako traza-dura.

6. Tranbia metropolitarraren bitartez lotu dadila Zizur-Barañain-Iruña geltokia Iruñeko erdigunearekin eta Iruñerriarekin.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun zentro eta kontsultategietako gabetasunei presako erantzuna eman diezaien.

OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun zentro eta kontsultategietako gabetasunei presako erantzuna eman diezaien."

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak 2006ko martxoaren 22an egindako bileran, erabaki zuen

aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2005eko otsailaren 27ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 351/1992 Foru Dekretua alda dezan, osasun eskualde oinarritzakoak etengabeko laguntzaz hornitzeko.

OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da 351/1992 Foru Dekretua alda dezan, osasun eskualde oinarritzakoak etengabeko laguntzaz hornitzeko."

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak 2006ko martxoaren 22an egindako bileran, erabaki zuen

aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2005eko otsailaren 20ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, fisioterapiako eskolak eta kirurgia-operazio baten ondoko etxeko laguntza direla-eta Tuterako Reina Sofía Ospitalerako Osasun kontseilariak egiten dituen proposamenei buruzkoa.*FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea fisioterapiako eskolak eta kirurgia-operazio baten ondoko etxeko laguntza direla-eta Tuterako Reina Sofía Ospitalerako Osasun kontseilariak egiten dituen proposamenei buruz foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osoko Bilkuran erantzun diezaioten.

Kontseilari andreak Tuteran barna egin duen bisitatik, besteak beste egunkarietan jaso diren honako proposamenak ondoriozta daitezke.

1.- Nafarroako Unibertsitate Publikoak aldi baterako hartuko du Reina Sofía Ospitaleko bosgarren solairua osasun irakaskuntzetarako eta Fisioterapiako eskoletarako.

Esan nahi al du horrek gobernuak alde batera utzi duela behin betiko ospitale horretan eskualdeko adimen gaixoentzako zerbitzua jartzeko proiektua?

2.- Ebakuntza kirurgiko baten ondorengo etxeko laguntza sistema jarri behar al da abian, ebakuntza egin dioten pertsona horretarako prest dagoen kasuetarako eta kontraindikazio medikorik ez badago?

Ospitalearen menpeko zerbitzu hori publikoa izanen al da, hau da, Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek eskainiko al dute?

Zein plantillak osatuko du?

Iruñean, 2006ko martxoaren 14an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen kontseilariak 33/2006 Foru Agindua emateko izan dituen arrazoiei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen kontseilariak 33/2006 Foru Agindua emateko izan dituen arrazoiei buruz foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregela-

menduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak ahoz erantzun dezan Osoko Bilkuran.

2006-03-08ko 29. NAO n argitaraturiko Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren foru agindua ikusirik, honako galdera egin nahi dugu Osoko Bilkuran ahoz erantzun dadin.

– Zein arrazoi izan ditu kontseilariak 33/2006 Foru Agindua emateko, hau da, administrazioaren kabuzko berrikuspen prozedurari hasiera emateko deuseza deklaratzeko aldera Esteribarko arau subsidiarioak Ollokiko eta Arletako udalerrietan aldatzeko behin betiko onespina emateko presuntziozko egintza?

Iruñean, 2006ko martxoaren 16an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, Nafarroako Gobernuak Baluarte-Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditorioko errotulazioari buruz Nafarroako Parlamentuak onetsi zuen erabakia betetzeko asmorik ote duen jakitekoa.

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Nafarroako Gobernuak Baluarte-Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditorioko errotulazioari buruz Nafarroako Parlamentuak onetsi zuen erabakia betetzeko asmorik ote duen jakiteko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 179. artikulua

eta hurrengoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuak lehendakari jaunari, Osoko Bilkuran erantzun dadin:

Honako hau azaltzen dut:

2005eko apirilaren 13an, Eusko Alkartasunaren erabaki proposamen bat onetsi zuen Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordeak Nafarroako Gobernuak premiatzeko lehenbailehen egin zitzaizkien beharrezko gestioak Baluarte-Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditorioko sarrera nagusiaren orduan gaztelaniaz bakarrik zegoenaren modu eta tamaina bereko errotulazioa ere jartzeko.

Urtarrilaren 12an, erabaki hori onetsi eta bederatzigarren hilabete geroago, parlamentu-talde honek galdera bat egin zion Kultura eta Turismo kontseilari Nafarroako Gobernuak Baluarteko sarrera nagusia euskaraz jartzeko eginiko gestioen egokieraren berri jakiteko.

Kontseilariak, galdera horri erantzunez, esan zuen ez duela aldatuko Baluarte-Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditorioko sarrera nagusiko errotilazioa.

Hori guztia dela eta, honako galdera aurkeztu dugu Nafarroako Gobernuko lehendakariak erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer asmo du Baluarte-Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditorioko errotilazioari buruz legebiltzar honek onetsi zuen erabakia betetzeari dagokionez?

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Eleduna: Begoña Errazti Esnal

Galdera, “Nafarroako Erresuma, lur anitza” esloganari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, “Nafarroako Erresuma, lur anitza” esloganari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaioten.

Azken hilabete hauetan, Kultura eta Turismo Departamentuak turismoa sustatzeko kanpaina bat jarri du abian “Nafarroako Erresuma, lur anitza” eslogana eta zenbait adierazpen grafiko erabiltzen.

Aste batzuetatik hona, eslogan bera Club Atlético Osasunak erabiltzen du bere futbol-zelaian, arestian El Sadar izena eta azken bolada honetan “Reyno de Navarra” izena duen horretan. Halere, badirudi aldaketa hori ez dela heldu Nafarroako Gobernuarekin sinaturiko publizitate-sustapeneko hitzarmen edo kontratu batetik (halakorik iragarri da baina ez da oraingoz sinatu), baizik eta klubaren beraren erabaki batetik: horixe adierazi dute komunikabideek.

Horregatik guztiagatik, ondoko galderari erantzutea eskatzen dut:

“Nafarroako Erresuma, lur anitza” eslogana eta haren adierazpen grafikoak, babestuta al daude merkataritza-marka gisa?

Edozeinek libreki erabil ditzake eslogan eta adierazpen grafiko horiek edo Nafarroako Gobernuaren baimena behar du? Baiezkoan, zein da baimen hori emateko irizpidea?

Hala bada, eman al zaio baimen hori Club Atlético Osasunari? Beste pertsona edo entitate-
ren bati eman al zaio?

Iruñean, 2006ko martxoaren 10ean

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

Galdera, Osasun Departamentuak plangintza eta aurreikuspena direla-eta zentro psikogeriatrikoari egindako proposamenari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, Osasun Departamentuak plangintza eta aurreikuspena direla-eta zentro psikogeriatrikoari egindako proposamenari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoaren zuzendaritzak Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeari eta Osasun Departamentuko kontseilariari "jarduera berrirako proposamenak" izeneko proiektua aurkeztu zien. Honela laburbiltzen zuten:

– Adimen gaixoentzako egoitza lagundu bat.

– Lanerako prestatzeko unitate bat.

– Tutoretza bidezko unitate bat.

Bestalde, zentro horretako ordezkari sindikalek publikoki kritiko azaldu dira hartutako konpromisoak ez betetzearekin.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

1.- Zein da Osasun Departamentuak zentro psikogeriatrikoari buruz duen proposamena eta zein da haren etorkizuna? Plangintzari eta aurreikuspenari buruzko informazio zehatza eskatzen dugu.

2.- Zer konpromiso hartu ditu Nafarroako Gobernuak San Frantzisko Xabierkoa zentroarekin? Honakoak eskatzen ditugu:

– Konpromiso horien betetzeari buruzko azalpen zehaztua eta arrazoitua.

– Konpromiso horien ez-betetzeari buruzko azalpen zehaztua eta arrazoitua.

Iruñean, 2006ko martxoaren 10ean

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, kontratazio mahaiari buruzkoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1140/2005 epaiaren betetzearen harira.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, kontratazio mahaiari buruzkoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren

1140/2005 epaiaren betetzearen harira. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurrak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1140/2005 epaiaren betetzeari buruzko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

- Nork osatzen dute Kontratazio Mahaia?
- Ángel Sanz Barea jauna al da mahaiburua?

– Kontratazio Mahaia osatzen dutenetatik, zenbat dira Sanz Barea jaunaren menpeko hierarkikoak Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza Nagusian?

– Noiz izendatu ziren Kontratazio Mahaiko kideak?

– Noiz argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean Kontratazio Mahaiko kideak izendatzeko erabakia?

Iruñean, 2006ko martxoaren 16an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1140/2005 epaiaren betetzearen harira aldeek errekurtsioak aurkezteko ezarritako epeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1140/2005 epaiaren betetzearen harira aldeek errekurtsioak aurkezteko ezarritako epeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurrak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren

1140/2005 epaiaren betetzeari buruzko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

– Zein epe jarri zen aldeek, bidezkotzat joz gero, errekurtsioa nahiz errefusatzea aurkeztu ahal izan zezaten?

– Zein izan ziren gobernuko zerbitzu juridikoei eta justizia administrazioari kontsultak egiteko arrazoiak?

– Zein izan zen erantzuna?

– Zein irizpideren arabera ordeztu dira 1998ko mahaiko kideak 2006ko mahaia eratzeko garaian?

– Zein egun zehaztuta eratu zen Kontratazio Mahaia?

– Zer erabaki hartu ziren?

Iruñean, 2006ko martxoaren 16an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, administrazioari aholku emateari buruzkoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1140/2005 epaiaren betetzearen harira buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, administrazioari aholku emateari buruzkoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1140/2005 epaiaren betetzearen harira. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1140/2005 epaiaren betetzeari buruzko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

– Aholku-txostena eskatu al zaio administrazioaz kanpoko erakunde edo entitateen bati?

– Zein prozedura erabili da kanpoko aholkularitza adjudikatzeko?

– Lehiaketa publikoa egiteko zein modalitate aukeratu da?

– Txostena egiteko adjudikazio-hartzaile suertatu den aholkularitza entitateak izan al du lehen-dik loturaren bat Nafarroako Gobernuarekin?

– Adjudikazio-hartzaile suertatu den aholkularitza-entitateak kontraturen bat sinatua al du foru administrazioarekin?

– Txostena egitea esleitu zaion aholkularitza-entitateak ba al du kontratu-lotura, hitzarmen edo harreman motaren bat Nafarroako Unibertsitatearekin?

Iruñean, 2006ko martxoaren 16an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Nafarroako Gobernuak iragarritako zenbat plan taxutu eta onetsi diren jakitekoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak iragarritako zenbat plan taxutu eta onetsi diren jakitekoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Migu-

el José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Legebiltzarreko Osoko Bilkuran 2003ko ekainaren 25ean eginiko inbestidurako hitzaldian, Nafarroako Gobernuko lehendakariak iragarri zuen, beste neurri askoren artean, hainbat arlori buruzko planak eginen zituela. Honako hauek, zehatz esanda: 1. Indarkeriak mehatxatutako hiri eta herrietarako segurtasun plana. 2. 2004-2007 urteetarako Nafarroako plan teknologikoa. 3. Enplegurako foru plana. 4. Nafarroako merkataritza-estrategikoa. 5. 2005-2010 urteetarako osasun plana. 6. Osasun sistemaren erabateko kalitateari buruzko plana. 7. Hainbat eskualderen landa garapenerako berariazko planak. 8. Gazte-

entzako laguntza integralari buruzko plana. 9. Adingabe eta nerabeentzako plana. 10. Plan gerontologikoa. 11. Lurzoruaren eta etxebizitzaren plan estrategikoa. 12. Bide segurtasuneko plan integrala. 13. Administrazioa modernizatzeko plan integrala. 14. Errepideei buruzko plan zuzendaria. 15. Frantzisko Xabierkoaren bosgarren mendeurrenaren plan zuzendaria.

2003ko irailaren eta urriaren artean, Gobernu-ko kontseilariak agerraldiak egin zituzten Legebiltzarreko kasuan kasuko batzordeetan, legegintzaldian zehar garatu nahi zituzten ekimenak azaltzeko. Lehendakariak iragarritako planei beste zenbait gehitu zitzaizkion.

2003ko irailaren 18an, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak jakinarazi zuen joko makinaren ikuskapen teknikorako plan bat onetsi nahi zuela; eta segurtasun eta babes zibileko langileak prestatzeko plana; ikuskizun publikoak ikuskatzeko plana; gai arriskutsuen garraioari buruzko plan bereziaren berrikuspina; tunel, elurte, lurrikara, aire-hondamendi eta sektore kimikoko istripu larrien larrialdietako planen berrikuspina; lurralde planaren berrikuspina eta uholde eta oihanetako suei buruzko planetako berrikuspina; alerta eta alarma sistema guztiak koordinatzeko plan bat eginen zuen; eta Foruzaingoaren plan zuzendaria; boluntario-lana kudeatzeko, kontrolatzeko eta finantzatzeko plana, eta su-itzaltze eta salbamendu zerbitzurako plan estrategikoa.

Ekonomia eta Ogasun kontseilariak, berriz, 2003ko irailaren 18an, honako planak iragarri zituen: telekomunikazio azpiegiturei buruzko plana; epe ertaineko plan ekonomikoa; iruzur fiskalaren aurkako plana, tributuak kontrolatzeko plan integrala, administrazioaren higieziei buruzko plana, informazioaren gizartea sustatzeko plana eta komunikazioaren eta informazioaren zerbitzu eta teknologiei buruzko plan estrategikoa.

2003ko irailaren 19an, Hezkuntza kontseilariak adierazi zuen asmoa zuela honako planak egiteko: aparteko gaitasun intelektuala duten ikasleei laguntza emateko plan integrala eta irakasleentzako prestakuntza plana.

2003ko irailaren 23an, Kultura eta Turismo kontseilariak adierazi zuen honako planak egiteko asmoa zuela: turismoko marketinari buruzko plana; aztarnategi arkeologikoei buruzko plan zuzendaria; liburutegien sistemako zerbitzuen irakurketa mapa eta zerbitzuen kartari buruzko plan zuzendaria; landa turismoari buruzko eta kultur turismoari eta Santiago Bideari buruzko esparruplanak; turismo sustapenari buruzko plana, turis-

mo sektorea informatizatzeko plana eta museoen plana.

2003ko irailaren 23an, Osasun kontseilariak iragarri zuen plan sozio-sanitarioa egiteko asmoa zuela.

2003ko urriaren 1ean, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak iragarri zuen departamentuan Nafarroa jatorrizko deituraren marketinari eta komunikazioari buruzko plan estrategiko bat eginen zuela, bai eta landa garapenari buruzko plan bat ere.

2003ko urriaren 2an, Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariak aurreikusten zuen saltoki handien lurralde eredu idatzi eta onetsiko zela, bai eta plan energetikoa eta enpresak nazioartera ateratzeko plana ere.

2003ko urriaren 2an, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak iragarri zuen honako planak prestatuko zituela: Natura 2000 sarean proposaturiko leku guztien kudeaketarako planak, ibaien saneamendua berrikusteko plana eta hiri hondakin solidoen plana, Nafarroako lurralde estrategiari buruzko plana eta eskualdeko lurralde antolamenduko planak.

2004ko martxoaren 31n Nafarroako Gobernuaren osaketa birmoldatu ondoren, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak adierazi zuen asmoa zuela honako planak egiteko: Estellerriko errepideak berritzeko plana, turismo-seinaleei buruzko plana eta Iruñerriko eskualdeko garraioari buruzko bigarren plana.

Azkenean, 2004ko apirilaren 6an, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariak honako planak eginen zituela iragarri zuen: ezgaituei laguntzeko plana, etxe gabekoentzako jarduketa plana, emakumearen berdintasunaren aldeko plana, Nafarroako Emakumearen Institutuaren plan estrategikoa, kirolaren plan estrategikoa, 2005-2007 urteetarako kirol azpiegituren plana eta gazteentzako etxebizitzari buruzko plan integrala.

Legegintzaldia nahikoa aurreraturik dagoen honetan, eta hura bukatzeko urtebete falta dela, Nafarroako Gobernuak honako galderei erantzutea nahi genuke:

– Arestian aipaturiko planetatik zenbat egin eta onetsi dira? Plan bakoitza onetsi duen organoa eta zein egunetan onetsi den jakin nahi dugu.

– Onetsi ez diren planetatik, zenbat lantzen ari dira? Lan horretan ari den organoa, noiz bukatuko duen eta Nafarroako Parlamentura igorriko ote duen jakin nahi dugu;

– Onetsi ez diren planetatik, zenbatetan erabaki da ez egitea? Zein arrazoiengatik?

– Kasua bada, legegintzaldiaren hasieran aurreikusi edo iragarri ez ziren zenbat plan landu eta onetsi ditu foru erkidegoko administrazioak?

Lan horretaz arduratu den organoa eta hura noiz onetsi den aipatzea nahi dugu.

Iruñean, 2006ko martxoaren 16an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	